



## ALDEZ AURREKO KONTSULTA FORU GOBERNU KONTSEILUAREN FORU DEKRETU PROIEKTUAZ, ZEINA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO LURRALDE INFORMAZIOAREN ERREGISTROA (ALIE) SORTZEKO BAITA

Bat etorri maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuak, xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onartzen dituenak, I. eranskinaren 9. artikuluan xedatutakoarekin, eta xedetzat hartuta herritarrek parte hartze handiagoa izan dezatela xedapen arauemaileak egiteko prozeduran, goiburuan adierazitako aurreproiektua/proiektua egin aurretik kontsulta publiko bat bideratu da, zeinaren bidez honako alderdi hauen gaineko iritzia eskatuko baitzaie egingo den arauaren eraginpean izan daitezkeen herritarrei eta ordezkarietza handieneko erakundeei:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Onartu nahi den arauaren beharra eta egokitasuna.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Ordezko konponbideak, araugintzazkoak zein araugintzaz bestekoak.

Aurrekoa betez, nola eta Arabako lurralde historikoko odonatuen edo sorgin orratzen gaineko zientzia-zabalkundeko liburu bat saltzeko publikoarentzako salmenta prezioa ezarri nahi duen xedapen bat den ematekoa, xedapen horrek eragin ahal dien herritarren eta ordezkarietza antolakundeen iritzia jakiteko egiten da kontsulta hau.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, **2018/08/17(e)ra arte**, [aurrezkontsultak@araba.eus](mailto:aurrezkontsultak@araba.eus) helbide elektronikoko postontziaren bidez.

<b>AURREKARIAK</b>	Otsailaren 21eko 4/2011 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen mugak, izena, hiriburua eta ezaugarriak arautzen dituena, hain zuzen bigarren xedapen gehigarrian ezartzen baitu Arabako Lurralde Historikoko Lurralde Informazioaren Erregistroa sortuko dela; eta otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuak, Ingurumen eta Hirigintza Sailaren egitura organiko eta funtzionala onesten duenak, 19 a) artikuluan xedatutakoa.
--------------------	--

<p><b>KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK</b></p>	<p>Gai horretako araudia betetzea, hartara bermatu dadin AFAk ekoitzitako geografia eta lurralde informazioa eskuragarri eta beste batzuekin batera erabiltzeko moduan egongo dela.</p>
<p><b>ONARTU NAHI DEN ARAUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA</b></p>	<p>Geografiari buruzko informazioa, geografiako eremu baten deskripzioari loturiko datu, metadatu eta prozesuen multzotzat hartuta, ezinbestekoa da errealitatea hobeto ezagutzeko, herri administrazioek kudeaketa eraginkorra egiteko, jarduera ekonomikoa garatzeko eta herritarrei zerbitzua emateko. Lurralde mugaketei dagokienez, ALHko toki erakundeen arteko muga lerroak egiaztatuko ditu, 4/2011 Foru Arauak ezarritako eran; eta toponimiari eta izendegiari dagokienez, AFari dagokio, hori buruz foru arau horretan ezarritakoaz gain, toponimoak biltzea, bai berak ezarritakoak bai lurraldeko udalek ezarritakoak.</p>
<p><b>HELBURUAK</b></p>	<p>Administrazioaren erregistro publiko bat sortzea, non honako hauek erregistratuko baitira: AFaren kartografia ekoizpena, geografia eta toponimia izendegia, ALHko toki erakundeen lurralde mugaketak, eduki horien ofizialtasunaren araudia, haien eskuragarritasuna eta beste batzuekin batera erabiltzeko aukera.</p>
<p><b>ORDEZKO KONPONBIDEAK, ARAUGINTZAZKOAK ZEIN ARAUGINTZAZ BESTEKOAK</b></p>	<p>Ez dago ordezko konponbiderik</p>